


## MATERIAL BERRIAK

*Electude simuladorearen plataformatik Lanbide Heziketarako atal erabilienak itzuli dira:*

- 1 OMEK
- 2 MOTO,
- 3 TBSI
- 4 KASI
- 4 IZEO



### Bestelakoak:

#### Neurtzeko tresnak eta teknikak: aurkezpenak-ariketak

Aurkezpen hauetan, metrologian erabiltzen diren oinarrizko tresnen deskribapena eta azalpena eskaintzen da. Dena den, irakasleak bere helburuen arabera osatu beharko du gaia; izan ere, oinarrizko informazioa ematen duen gaia baino ez da hau. Tresna bakoitzaren oinarriak ulertu diren ala ez egiaztatzeko, ariketa eta galdera batzuk proposatzen dira. Erantzunak, gehienetan, gaian bertan erraz aurkitu daitezke; gutxitan beharko da bestelako informazioa edo irakaslearen azalpen osagarria. Tresnak lantzeko proposatuko diren laborategi-praktikak irakasleak zehaztu beharko ditu, ikastetxeak dituen baliabideak kontuan hartuz: piezak eta neurri zehatzak, neurtzeko tresnak... Aurretik badago "Neurtzeko tresnak eta teknikak" izeneko lan bat. Lan honetan aurreko apunte horietan dagoen informazioa aukeratu, laburtu, egokitu... eta aurkezpen laburretan bildu da.

Laneki Jakinbai 2018 — 2023/03/28



#### Jokabide suizida eta autolesioa prebenitzeko lanketa integrala

Liburuaren sarreran aipatzen den bezala, lan hau ezinbesteko tresna da suizidioaren prebentzioan interesatuta dauden eta bilduma eguneratu, konprometitu, gizatiar, zientifiko eta hurbila bilatzen duten osasun-munduko profesionalentzat, irakasleentzat eta familientzat, suizidioaren konplexutasuna ulertzeko. Bertan, suizidioari modu integrarean helduko zaio eta lan-tresnak eta laguntza-baliabideak eskainiko dira. Material hau lralen zuzentzen ari dira eta hainbat gai behin-behinekoak dira.

Laneki Jakinbai 2018 — 2023/04/24



## MATERIAL BERRIAK ESKURATU

## LH DUALA EUSKARAZ MARKA

*LH Duala euskaraz marka erabiltzeko proposamena egin zaie ikastetxe eta lantokiei*

**KOPIATU  
MARKA ->**

[lhdualaeuskaraz.eus](http://lhdualaeuskaraz.eus)



**Ikastetxe eta lantokientzat proposamena:**

**Zuen ikastetxean LH Duala euskaraz bideratzen bada, ondorengo pausuak eman:**

1. Zuen ikastetxeko web gunean marka jarri adibidez Dualeko atalean.
2. LHDuala euskaraz egiten ari direnekin argazkia atera eta igo sare sozialetara. Zuen txioetan etiketatu Laneki: @jakinbai
3. LH Duala euskaraz egiten ari diren lantokiak gonbidatu beren izena argitaratzera, errekonozimendurako. LH Duala euskaraz lantokien gidan agertuko dira.

Lantokiek eman baimena hemen: [BAIMENA](#)





## GAITU COMMON VOICE

Mozilla Common Voice benetako jendeak nola hitz egiten duen makinei erakusten laguntzeko ekimena da

Lagungu nahi duzu? Nola? Grabatu ahotsa edo entzun: [hemen](#)

### Hitz egin

Grabatu zure ahotsa

Ahots grabazioak egitea proiektu honetako datu bilketaren funtsa da; batzuek diote dibertigarria ere badela.

Lagun gaitzazu 1.200 lortzen

[Gure Baldintzak irakurri dituzu?](#)

### Entzun

Lagundu ahotsak balioztatzen

Grabazioak balioztatzea, ahotsa uztea bezain garrantzitsua da Common Voiceen helbururako. Mesedez, hartu denbora entzuteko eta lagun gaitzazu kalitatezko ahots-datu libreak sortzen.

Lagun gaitzazu 2.400 lortzen

[Gure Baldintzak irakurri dituzu?](#)

